

Gipuzkoa  
Zegama  
Barrenaldea

### ALTZIBAR TEILERIA TEJERA ALTZIBAR



Barrenaldea auzoan harlagaintzeko eraikin angeluzuzen txiki bat dago, pendizari egokituta eta beheko solairuan beste eraikin bat atxikita duela. Teilagintza XVII. mendetik dokumentatuta dago Zegaman, baina teileria hau XIX. mendearen bigarren erditik aurrera hasi zen lanean; XX. mendearen lehen herenean ere martxan egon zen. Bi isurialdeko estalkia dauka, asimetricoa, lau zutabe bakartuk eta eraikinaren hormak eutsita. Alboko eranskinak isurki bakarreko teilatua du, eta bertatik teilaginen aretoa bide zen beste gela batera iristen da. Mendebaldeko fatxadan ate bat dago, lau angeluko gela batera ematen duena; dirudieenez, bertan lantzen eta lehortzen zituzten piezak. Puntu erdiko dobeladun arku batetik labera iristen da. Labe arabiarra mendi-mazelan egindako zulo batean dago. Bi ganbera ditu bata bestearen gainean: behekoa sugaietarako, eta goikoa teilak erretzeko. Labearen beheko aldean, hegoaldeko fatxadan, puntu erdiko beste bi bao daude: sugaiak sartzeko ahoak. Labeak kono-enbor forma du, nolabait ere. Oinplano angeluzuzena du, eta barrualdea adreilu trinkozkoa da. Beheko solairuan plataforma bat dago lurra baino pixka bat gorago, sugaia isolatuta egon zedin. Labearen bi solairuak zolarritz daude bereizita, eta zulotxoak dauzkate, beroa igarotzeko eta materiala erretzeko. Monumentu izendatu zuten 2010ean, eta teilagintza-tradizioaren lekuko urrietako bat da. Gaur egun, monumentuari balioa emateko proiektu bat dago martxan.

En el barrio de Barrenaldea se alza una pequeña construcción rectangular de mampostería, adosada al desnivel del terreno, con anexo yuxtapuesto en la parte baja. La actividad tejera se documenta en Zegama desde el siglo XVII, pero esta tejera empezó a funcionar a partir de la segunda mitad del siglo XIX y se mantuvo en activo en el primer tercio del XX. Su cubierta es a dos aguas, asimétrica, sustentada por cuatro pilares exentos y el muro de la edificación. El anexo lateral, desde donde se accede a otra estancia que pudo albergar la habitación de los tejeros, se cubre a un agua. En su cara oeste tiene un vano por el que se accede a una estancia cuadrangular que, al parecer, se utilizaba para laboreo y secado, y por la que, a través de un arco de medio punto adovelado, se accede al horno. El horno árabe se encuentra empotrado en un hueco excavado en la ladera, con doble cámara superpuesta, la inferior para combustión y la superior para cocción. En la parte inferior del horno, y por su cara sur, presenta otros dos vanos de medio punto que eran las bocas de alimentación. El horno tiene forma ligeramente troncocónica, con planta rectangular, e interior de ladrillo macizo. En su planta inferior presenta una plataforma elevada sobre el suelo, de forma que el combustible quedaba aislado. La solera, que separa las dos plantas del horno, presenta orificios para dejar pasar el calor y posibilitar la cocción del material. Monumento desde 2010, es un testimonio de calidad de la actividad tejera tradicional, de la que quedan ya muy pocos testimonios materiales. En la actualidad se está ejecutando un proyecto de puesta en valor.